

BERDINTASUNA LANTZEKO DOMINOA

EKINTZAREN GARAPENA:

- Jolasa lanbide maskulino eta femeninoko bikotea bilatzean datza.
- Banaka: dominoa aztertu eta bost fitxa hartzen ditugu, gainerakoak ahoz behera uzten ditugu multzo batean, bikoterik ez badugu pilatik lapurtzen goaz, dominoa osatu arte.
- Bikotean edo taldean: domino fitxa guztiak banatzen ditugu eta bikotearen bila joaten gara. Aurretik fitxarik gabe geratzen denak irabazten du.

HELBURU NAGURIA:

- Genero estereotipak lantzea.
- Ikusi behar da lanbideek ez dutela generorik, hau da, ez direla ez maskulinoak, ez femeninoak; aitzitik, emakumeek eta gizonek lanbide batzuk aukeratzerakoan prebalentzia handiagoa ikusten da. Baina lanbideak berdin bete daitezke.

HELBURU ZEHATZAK:

- Arreta lantzen dugu, dagokion bikotea bilatuz.
- Semantika indartzen dugu, hau da, lanbideen eremu semantikoa. Eremu semantiko bat esanahiagatik lotutako hitz multzo batek osatzen du, eta ezaugarri komun edo semantiko batzuk partekatzen ditu.
- Gure lexikoa zabaltzen dugu, lanbideak izendatuz eta ezaqutu ez ditzakegun beste batzuk ikasiz, bururatzen zaizkigun eta dominoan ez datozen batzuk ere gehi ditzakegu.

- **Autor pictogramas:** Sergio Palao **Procedencia:** ARASAAC (<http://arasaac.org>)
Licencia: CC (BY-NC-SA)
- **Autor:** Cecilia Palomo Carrión. Centro Ocupacional y de Día Dr. José Portero. Ayuntamiento de Torrijos.
- **Traducción euskera:** Naiara Aizkorbe





